

ITSAS MUSEUM BILBAO

FUNDACION MUSEO MARITIMO RIA DE BILBAO-BILBOKO ITSASADARRA
ITSAS MUSEOA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Izena, araubide juridikoa eta iraupena.

"BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOA" irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta bere ondarea interes orokorreko helburuak gauzatzearekin dago lotuta, modu iraunkorrean.

Fundazioa honako estatutu hauen eta aplikagarriak zaizkion lege-arauen arabera arautuko da, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen, hura garatzen duten erregelamenduzko xedapenen eta indarrean dauden gainerako xedapenen arabera.

Fundazioaren iraupena mugagabea da.

2. artikulua.- Nortasuna.

Fundazioak gaitasun juridikoa eta jarduteko ahalmen osoa izango du, muga hauekin soilik: sortzaileek fundazioaren eraketa-ekitaldian beren borondatez adierazitakoak, estatutu hauetan ezarritakoak, eta, betiere, aplikagarriak zaizkion lege-xedapenetan eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean jasotakoak.

Horrenbestez, eta babesletzari egin beharreko komunikazioak eragotzi gabe, jarduteko erabateko gaitasuna izango du fundazioak bere helburuak bete ahal izateko, Kode Zibilaren 38. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

ITSASMUSEUM BILBAO

Fundazioak hauek egin ahal izango ditu:

- a) Mota guztietako jarduera ekonomikoak gara ditzake, elkartearen helburuak lortzeko edo horiek erdiesteko baliabideak batzeko.
- b) Mota guztietako ondasunak eta eskubideak bereganatu eta besterendu ditzake, edozein tituluren bidez, eta mota guztietako egintzak, negozioak eta kontratuak egin ditzake.
- c) Mota guztietako ekintzak gauza ditzake, estatutuekin eta legeekin bat etorrita.

3. artikulua.- Helburuak.

Hauek dira fundazioaren helburuak:

Itsasoarekin lotutako jarduera guztiek osatzen duten ondare historikoa ikertzea, babestea eta hedatzea, eta gai horren inguruko lanak bultzatzea eta sustatzea. Era berean, ildo horretan garatuko diren ekimen publiko eta pribatu guztiekin elkarlanean aritzea, museoaren helburuekin bat datozen mota guztietako erakusketak egin ahal izateko beste esparru batzuetako erakunde eta elkarteekin izan daitezkeen harreman eta lankidetzak programak kaltetu gabe; ur gaineko erakusketetan, museoko kaletara iristen diren itsasontzien gordetze-lanez ere arduratuko da. Horren guztiaren garapenetik eratuko da BILBOKO ITSASADARRAREN ITSAS MUSEOA, patronatuak erabakitzen duen merkataritza-marka erabiltzeko aukera gorabehera.

ITSASMUSEUM BILBAO

Fundazioak bere helburuak eta jarduerak publiko egingo ditu, onuradun izan daitezkeenek edota interesa dutenek ezagut ditzaten.

4. artikulua.- Helbidea.

Hau da fundazioaren helbidea: Ramon de la Sota kaia 1. zenbakia.

Fundazioaren Patronatuak estatutuak aldatzeko hartutako erabaki baten bidez alda daiteke helbide hori; aldaketa hori Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da. Era berean, patronatuari ahalmena ematen zaio kasuan kasu establezimenduen, ordezkaritzen edota bulegoen egoitzak hautatzeko, fundazioaren helburuak betetzeko eginkizunean sortzen diren beharren arabera.

5. artikulua.- Lurralde-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan garatuko du bereziki bere jarduera fundazioak.

Zehaztutako lurralde-eremu horren barruan, patronatuak erabakiko du, kasuan kasu, zer kokapenetan garatuko diren zehazki erakundearen jarduerak.

6. artikulua.- Onuradunak.

1- Fundazioaren prestazioen eta zerbitzuen onuradun fundazioaren helburuek eskatzen dituzten baldintzak betetzen dituen pertsona oro izan daiteke.

2- Zehazki onuradunak nor izango diren izendatzeko, honako

ITSASMUSEUM BILBAO

hauek izango ditu kontuan patronatuak:

- a) Fundazioaren jarduerak pertsona fisikoek nahiz juridikoek osatutako kolektibo orokorreari ekarri behar die onura. Onuraduntzat enpresa bateko edo batzuetako langileek eta haien senitartekoek osatutako kolektiboak hartuko dira. Nolanahi ere, onuradunak izango diren kolektiboak aukeratzeko irizpideek objektiboak eta inpartzialak izan behar dute.
- b) Fundazioaren helburu nagusia ez da izango haren prestazioak honako pertsona hauei eskaintzea: fundatzaileei edo patronatuko kideei; ezkontideei edo haiekin antzeko harreman afektibo bat dutenei; laugarren gradura arteko (laugarrena barne) senideei; eta interes orokorreko helbururik gabeko pertsona juridiko bereziei.
- c) Inork ezin izango du alegatu, ez bakarka, ez taldeka, fundazioaren edo patronatuaren aurrean, onura horiek eman aurretik horiez gozatzeko eskubidea, eta ezingo die pertsona jakin batzuei eman ere.

3- Onuradun guztiei prestazioak edo zerbitzuak eskaintzea ezinezkoa den kasuetan, hautespen-irizpide, ordena eta lehentasun hauen arabera aukeratuko dira onuradunak:

1. Itsas kulturarekiko sentsibilitate berezia eduki behar dute.
2. Museoko lokaletara sartzeko edo fundazioak sustatzen dituen eta gastuak sortzen dituzten jardueretan parte hartzeko aurreikusitako kuotak, sarrerak

ITSAS MUSEUM BILBAO

edo zenbatekoak ordainduko dituzte, horrela, konpentsatu ahal izateko.

3. Patronatuak, ekintzaren izaeraren arabera eta ohiturekin bat etorrita -baita protokolozkoak ere-, kasu bakoitzean eskatzen dituenak.
4. Dena den, lehentasuna emango zaie fundazioaren lurralde-eremuan bizi direnei.

7. artikulua.- Jarduketa eta funtzionamendurako printzipioak.

Fundazioak printzipio hauen arabera bideratuko du bere jarduketa:

- a) Publikotasuna eta gardentasuna. Fundazioaren xedeei eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emango du, oro har herritarrek nahiz, behin-behineko onuradunek ezagut ditzaten.
- b) Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza onuradunak zehazterakoan, bai eta jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
- c) Jarduketa-jarraibideen sustapena. Horretarako, jokabide-kodeak eta jardunbide egokien kodeak sortuko ditu.
- d) Patronatua osatzen duten pertsonen zerbitzu-espirtuaren sustapena, bai eta norberaren interesen edo interes partikularren aurretik fundazioaren interesak lehenesteko espirtuarena ere.
- e) Etengabeko lankidetzaren leiala Euskal Autonomia

ITSASMUSEUM BILBAO

Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.

f) Fundazioaren ondarea eta errentak benetan fundazioaren helburuetara bideratzeko betebeharrak bete daitezen zaintzea eta zeregin hori babestea, estatutu hauetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrita.

g) Genero-berdintasuna.

II. KAPITULUA- FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEAK

8. artikulua.- Laguntzaileak.

Fundazioak, Ondare Autonomo izaera badu ere, bere baitan har ditzake laguntzaile gisa fundazioaren helburuak lortzeko beren ezagutza, dedikazioa, esperientzia, ekarpenak eta benetako ilusioa eskainiz borondatez erakundean abskribatzen diren pertsona fisikoak eta juridikoak, horrek dakartzan betebeharrak beren gain hartuz.

9. artikulua.- Laguntzaile motak.

Fundazioaren laguntzaileak honako hauek izan daitezke, aurreko artikuluan jasotakoa kontuan hartuta: merezimenduzkoak eta ohorezkoak.

10. artikulua.- Merezimenduzko laguntzaileak.

Merezimenduzko laguntzaileak dira, aurrez hala eskatu dutelako, eta biltzen dituzten baldintza bereziak kontuan hartuta, fundazioarenak diren jardueren garapenean eman duten edota eman dezaketen laguntzagatik nahiz egin duten edo egiteko konpromisoa hartu duten ekarpen ekonomikoagatik patronatuak onartzen dituen pertsona fisiko edo juridikoak.

11. artikulua.- Ohorezko laguntzaileak.

Ohorezko laguntzaileak dira zientziaren, teknologiaren eta giza zientzien esparruan egin duten lan garrantzitsuagatik edo fundazioari zerbitzu garrantzitsuak eskaini dizkiotelako

ITSAS MUSEUM BILBAO

edo eskaintzen dizkiotelako patronatuak izendatu dituen eta izendapen hori zor zain pertsona fisiko edo juridikoak.

12. artikulua.- Merezimenduzko laguntzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Merezimenduzko laguntzaileek legeak eta estatutuek ezarritako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte.

Guztientzat, ohorea eta betebeharra izango da fundazioaren helburuak lortzen laguntzea, patronatuak eskatzen dizkien lanak edo misioak garatzea, eta beraiei egokitzen zaizkien funtzio guztiak betetzea.

13. artikulua.- Ohorezko laguntzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Ohorezko laguntzaileek patronatuak modu orokorrean nahiz beren izendapenaren aktan ematen dizkien eskubideak eta betebeharrak izango dituzte.

14. artikulua.- Laguntzaile izateari uztea.

Fundazioko laguntzaileek laguntzaile izateari utziko diote, honako kasu hauetan:

- a) Beraiek dimisioa aurkezten dutenean edo uko egiten diotenean.
- b) Patronatuak hala egitea erabakitzen duenean, arrazoituta eta kideen gehiengoak hala erabakita, berdintasun-irizpideak eta fundazioaren helburuak betetze aldera gehien komeni dena kontuan hartuta.

ITSASMUSEUM BILBAO

- c) Pertsona fisikoa edo juridikoa hiltzen denean, porrot egiten duenean edo likidazio-kasuetan.
- d) Legean aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.



III.- GOBERNU-ORGANOAK.

15. artikulua.- Fundazioaren Patronatua.

Patronatua da fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organoa. Patronatuari dagokio fundazioaren helburuak betetzea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea, bai eta haien errendimenduari eta erabilgarritasunari eustea ere.

Bereziki, estatutu hauetako 26. artikuluan jasotako funtzioak dagozkio patronatuari.

16. artikulua.- Patronatuaren osaera.

1. Pertsona fisikoak zein juridikoak izan daitezke patronatuko kide. Patronatuko kide diren pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan behar dute, eta ez dute kargu publikoak betetzeko desgaituta egon behar. Patronatuko kide diren pertsona juridikoek organo horretan haien ordezkari izango diren pertsona fisikoak izendatu behar dituzte (bat edo batzuk); ordezkari horrek edo horiek beteko dute kargua, eta askatasun osoz eta inolako mugarik gabe ordeztu daitezke.

Patronatuaren kargua pertsona fisiko bati dagokionean, pertsonalki bete beharko da kargua, eta ezin izango da eskuordetu. Dena den, kargu publikoa edo pribatua duen bati dagokionean kargua, hark beste pertsona bat izenda dezake bere izenean kargua bete dezan.

2. Patronatuko kide izatea konfiantzazko eta ohorezko kargua

ITSASMUSEUM BILBAO

da. Beraz, kargu horien titularrek doan beteko dute kargua, beren lanarengatik inolako ordainsaririk jaso gabe. Hala ere, eginkizun horiei lotuta izan ditzaketen gastuen zenbatekoa itzul dakieke, behar bezala justifikatuz gero.

3. Patronatuko kideak behartuta daude:

- a) Fundazioaren helburuak zorrotz betetzera eta betearaztera, legean eta fundazioaren estatutuetan ezarritakoaren arabera.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak zuzen administra daitezen arduratzera, eta horien produktibitateari osorik eustera, kudeatzaile on baten irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera.
- c) Kargua legezko ordezkari bati dagokion ardurarekin betetzera.

17. artikulua.- Osaera, izendapena eta kargu-uztea.

I.- Osaera.

Patronatuko berezko kideek, patronatuko hautazko kideek eta patronatuko ohorezko kideek osatuko dute patronatua, ondorengo ataletan ezarritakoaren arabera. Bereziki fundazioaren sustapenarekin lotuta dauden erakundeek eta gizarte zibilaren ordezkariak fundazioaren organo gorenean izatea du xede, fundazioaren helburuak gauzatzearen alde erakunde horietan lanean ari diren kideen bidez, betiere.

1.- Hauek dira patronatuko berezko kideak:

ITSASMUSEUM BILBAO

- a) Bilboko Udalerriko alkatetza duen pertsona.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiaren lehendakaritza duen pertsona.
- c) Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberaren lehendakaritza duen pertsona.
- d) Bilboko Portuko Agintaritzaren lehendakaritza duen pertsona.

2. Patronatuko hautazko kideak dira, patronatuko berezko kideen gehiengoak hala erabakita, patronatuak hautatu dituenak.

3. Patronatuak, osoko bilkuran eta kideen bostetik lauко gehiengoarekin, patronatuko ohorezko kide izendatu ahal izango ditu, duten garrantziarengatik edota eskaintzen dizkien edota eskaini izan dizkien laguntza ekonomikoengatik edo beste edozein izaeratako laguntzengatik, fundazioari eskainitako zerbitzu garrantzitsuengatik edo egindako ekarpen pertsonal edo ondasun-ekarpenengatik titulu hori merezi duten mota guztietako pertsona, instituzio, elkarte eta erakundeak; era berean, kargutik ken ditzake, eta beren funtzioak betetzeko epeak ezar ditzake.

II.- Izendapena eta kargu-uztea.

Patronatuari dagokio patronatuko hautazko kideak izendatzea, eta une bakoitzean zehaztuko du horien kopurua.

Patronatuko hautazko kideak izendatzerakoan, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

ITSASMUSEUM BILBAO

a) Lehentasuna emango zaie egindako ekarpen ekonomikoei eta egiteko konpromisoa hartuta dutenei, ekarpen ekonomiko garrantzitsuenak egin dituzten horiek edota egiteko konpromisoa hartuta dutenek, hain zuzen, parte har dezaten patronatuan.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan finkatuta egotea.

Hiru urterako izendatuko dira, berriro hautatuak izateko kalterik gabe, eta beren izendapenaren epemugaren ondoren patronatuak osoko bilkuran egiten duen lehen bileraren egunean kargua uzten dutela ulertuko da.

Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari jakinarazi beharko dio patronatuko kideen izendapena eta kargu-uztea, hiru hilabeteko epean, erabaki horiek hartu diren egunetik edo kargua utzi den egunetik kontatzen hasita.

Izendatutako pertsonak espresuki onartu beharko dute kargua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 16. artikuluan aurreikusitako formuletako baten arabera. Kargu-uztea artikuluko horretako 2. atalean aurreikusita dauden formuletako baten arabera egin beharko da. Eskumena duen organo judizialak erabaki dezake patronatua osatzen duten pertsonak kargutik kentzea, legean aurreikusitako arduraz kargua ez betetzeagatik erantzukizun-ekintza bat abian jarri bada haien aurka.

Gobernu-organoa osatuko duten pertsonen izendapena eta kargu-uztea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan

ITSASMUSEUM BILBAO

inskribatuko dira.

Patronatuko hautazko kideak kargutik kendu ahal izango dira, patronatuko berezko kideen gehiengoaren onarpenarekin patronatuak hala erabaki duelako, honako kasu hauetan:

- a) Hiltzen direnean edo heriotza-deklarazioa izatean, eta baita pertsona juridikoa desagertzen denean ere.
- b) Legeak ezarritakoaren arabera, ezgaitasun-, desgaikuntza- edo bateraezintasun-egoeraren bat gertatzen denean.
- c) Patronatuko kide izendatzeko arrazoa pertsona horren kargua izan zenean eta pertsona horrek kargu horri uzten dionean.
- d) Kargua ordezkari leial batek bete beharko lukeen arduraz betetzen ez dutenean, baldin eta ebazpen judizial batek horrela adierazten badu.
- e) Erantzukizun-akzioa dakarren ebazpen judizial batengatik.
- f) Agintaldia amaitzen zaienean, baldin eta epe jakin baterako izendatu bazituzten.
- g) Karguari uko egiten diotenean.

Patronatuko ohorezko kideak kargutik kendu ahal izango dira, patronatuak osoko bilkuran kideen bostetik lauko gehiengoarekin hala erabakitzen duenean.

18. artikulua.- Patronatuko kideak ordeztea.

1- Patronatuko kideak ordezteko prozedura 17.II. artikuluan

ITSASMUSEUM BILBAO

adierazitakoa izango da.

2- , Ordezte hori aipatutako moduan egin ezin denean, Fundazioei buruzko Legean aurreikusitakoaren arabera estatutuak aldatuko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak ahalmena izango du fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organoak behin-behinean osatuko dituzten kideak izendatzeko, estatutuetan aldaketa hori egin arte.

3- Uneren batean patronatuko kideak hiru baino gutxiago badira -patronatuko kide bakarreko kasuetan izan ezik-, kargua indarrean duten gainerako patronatuko kideek, edota fundatzaileek, hala badagokie, legeak eskatzen duen gutxienerako kopurura iristeko behar adina kide izenda ditzakete, eta 30 eguneko epea izango dute babesletzari izendapen horiek jakinarazteko.

4- Patronatuko kideen ordezteak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

19. artikulua.- Patronatuaren barne-funtzionamendua.

1- Patronatuak bi bilera egingo ditu urtean gutxienez. Urte bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan, nahitaez bilduko da, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko; eta urte bakoitzeko azken sei hilabeteen barruan, aurrekontua eta hurrengo ekitaldiko jarduketa-plana onartzeko ditu.

2- Patronatuaren deialdiak idatziz egingo dira; lehendakari karguan dagoen pertsonak erabakitako gai-zerrenda jasoko

ITSASMUSEUM BILBAO

dute, eta kontuan hartuko dira gobernu-organoa osatzen duten kideen iradokizunak. Deialdi horiek bilera-eguna baino zazpi egun lehenago egingo dira gutxienez, premiazko kasuetan salbu, azken horietan epea 3 egunera murriztu ahal izango baita.

20. artikulua.- Eratzea eta erabakiak hartzea.

1- Patronatua balio osoz eratuko da lehenengo deialdian, pertsonalki edo ordezkari bidez, patronatuko kideen erdiak gehi bat agertzen direnean.

2- Aurreko paragrafoan aipatutako quoruma lortzen ez bada, ordubete beranduago bilduko da patronatua. Bigarren bilera horretan, nahikoa izango da hiru kide biltzea, haien artean lehendakaria eta lehendakariordea badaude, betiere.

3- Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, patronatua deitu egin dela eta balio osoz eratuta dagoela ulertuko da, kide guztiak bertan badaude eta aho batez bilera egitea onartzen badute.

4- Botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak, honako kasu hauetan salbu:

a) Aldaketa, bat-egite, bereizketa eta desagertzeari buruzko erabakiak hartzeko, nahitaezkoa izango da patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa.

b) Helbidea aldatzeari edo egoitza nagusia lekuz aldatzeari buruzko erabakiak hartzeko, nahitaezkoa izango da patronatuko kideen lautik hiruren aldeko

ITSAS MUSEUM BILBAO

botoa.

c) Patronatuko ohorezko kideen izendapenari eta kargu-uzteari buruzko erabakiak hartzeko, nahitaezkoa izango da patronatuko kideen bostetik lauren aldeko botoa.

d) Batzordeak izendatzeari buruzko erabakia hartzeko, nahitaezkoa izango da patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa.

5- Lehendakariaren botoak hautsiko ditu gerta daitezkeen berdinketak.

6- Patronatuaren bilera bakoitzari dagokion akta egingo du idazkariak; akta horretan, bilera egin den lekua eta eguna jasotzeaz gain, bileran izan diren pertsonak, aztertu diren gaiak eta hartutako erabakien edukiak zehaztuko dira.

7- Patronatua bideokonferentzia bidez edota beste hedabide batzuen bidez bil daiteke, honako alderdi hauek bermatzen direnean, betiere: bileran parte hartzen dutenak identifikatu ahal izatea, komunikazioaren jarraitutasuna, eztabaidetan parte hartzeko aukera, eta botoa eman ahal izatea. Kasu horretan, lehendakaria dagoen lekuan egin dela bilera ulertzen da.

8- Salbuespen gisa, patronatuak erabakiak hartu ahal izango ditu bilerarik egin gabe, informazio- eta boto-eskubidea bermatuta badaude, botoa jaso dela nonbait agertzen bada eta haren benetakotasuna bermatzen bada, betiere. Erabakia pertsona juridikoaren helbidean hartu dela ulertuko da, balioz igorritako botoa jasotzen den datan.

9- Ordezkaritza.

Patronatuko kideak gainerako edozein kideri eman diezaioke bertan parte hartzeko ordezkaritza, lehendakariari zuzendutako jakinarazpen idatziaren bidez, eta, beti, bilera bakoitzerako izaera espezifikoa duela kontuan hartuta.

Ordezkararen kargua betetzen duenak ordezkaritza hori bere gain hartzen duela ulertuko da, eta, beraz, estatutuetan aurreikusitakoaren arabera egin dela.

21. artikulua.- Patronatuko karguak.

Patronatuko karguak dira lehendakaritza eta lehendakariordetza. Idazkaritza Nagusirako, Koordinazio Orokorrerako edo Fundazioaren Zuzendaritzarako kargua betetzeko ere izenda daiteke pertsona bat.

22. artikulua.- Lehendakaritza.

Patronatuko berezko kideak izango dira patronatuko lehendakari; bi urtean behin txandakatuko dira karguan, ordena honen arabera:

- a) Bilboko udalerriaren alkatetza duen pertsona.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiaren lehendakaritza duen pertsona.
- c) Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberaren lehendakaritza duen pertsona.
- d) Bilboko Portuko Agintaritzaren lehendakaritza duen pertsona.

Kargua txandakatzeko unea iristean kargua dagokion patronatuko fundatzaileak izendapena onartzen ez badu,

ITSASMUSEUM BILBAO

ordenaren arabera hurrena egokitzen zaionak beteko du kargua. Lehendakariari dagokio, bere ekimenez edo gutxienez kideen herenak hala eskatuta, patronatua biltzeko deialdia egitea, eztabaidak bideratzea, eta hartutako erabakiak betearaztea. Patronatuko lehendakaria izango da gobernu-organo horretako ordezkari goren, eta, aipatutako organo horren kideari atxikitako ahalmenez gain, fundazioa ordezkatu beharko du patronatuak eta fundazioaren beste organo batzuek hartutako erabakietatik eratorritako ekitaldi eta kontratu guztietan, bai eta sortzen diren auzi, espediente, eta administrazio, gobernu, judizio bidezko eta judizioz kanpoko gaietan ere. Eta horretarako, prokuradoreei eta abokatuak ahalmen orokorrak eman ahal izango dizkie, azaldutako xedeari buruzko auzietarako.

23. artikulua.- Lehendakariordetza.

Patronatuak lehendakariordea izendatu ahal izango du bere kideen artetik, kideen gehiengoaren botoaren bidez. Lehendakari karguan dagoen pertsona ageri ez bada edo gaixo badago, lehendakariorde kargua hartu duen pertsonak ordezkatu du hura; hori egiaztatzeko, nahikoa izango da hark egoeraren berri ematea. Lehendakaria eta lehendakariordea agertzen ez badira, patronatuko kiderik zaharrenak ordezkatu du.

24. artikulua.- Patronatuko idazkaritza.

Patronatuak idazkari bat izenda dezake, bere kideen artetik

ITSASMUSEUM BILBAO

edo kanpoko pertsonen artetik. Idazkariaren ardurak hauek izango dira: fundazioaren administrazio-lanak zuzentzea, dokumentazioa zaintzea eta patronatuaren akta-liburura transkribatzen diren bileren aktak egitea, haiek onartuak izan eta lehendakariaren oniritzia jaso ondoren.

25. artikulua.- Patronatuko diruzaintza.

Patronatuak diruzain bat izenda dezake, bere kideen artetik edo kanpoko pertsonen artetik. Diruzainak honako zeregin hauek izango ditu:

- a) Fundazioaren funtsak biltzea eta gordetzea.
- b) Diru-sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatzea.
- c) Inbentario-liburuak, kontuak, jarduketa-plana eta eguneko liburua eramatea.

26. artikulua.- Patronatuaren funtzioak.

Fundazioaren gobernuari eta administrazioari dagokion guztia da patronatuaren eginkizuna, eta honako hauek, bereziki eta gutxienez:

- a) Fundazioaren orientabidea zehaztea, haren helburuak hobeto bete daitezen.
- b) Ekonomia- eta finantza-baliabide guztiak administratzea, horien jatorria edozein dela ere.
- c) Inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua eta aurreko ekitaldiko memoria onartzea, bai eta aldi horretako planaren likidazioa ere.

ITSASMUSEUM BILBAO

- d) Hurrengo ekitaldiko jarduera-plana onartzea, bai eta hura azaltzen duen memoria ere.
- e) Egoki diren barne-erregimeneko arauak onartzea.
- f) Batzorde delegatuak sortzea, batzorde horietako kideak izendatzea, batzorde horiek izango dituzten ahalmenak zehaztea, eta ahalorde orokorrak eta bereziak ematea, ondorengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.
- g) Zuzendaritza-, betearazpen- eta aholkularitza-karguak izendatzea, eta arlo teknikorako, administraziorako eta lan-arlorako behar diren langileak eta mendeakoak kontratatzea.
- h) Fundazioaren helburuei begira hobekien egokituko diren egintza eta kontratu-mota oro (izaera zibilekoak, merkataritza-koak, lan-arlokoak, administrazio-koak, etab.) formalizatzea eta onartzea.
- i) Erakunde eskudunei dagozkien proposamenak aurkeztea, goragoko erabakia behar duten gaietarako.
- j) Enpresen, elkarteen, erakundeen edo partikularen partaidetza sustatzea lankidetza teknikorako eta langile kualifikatuak trebatzeko programetan, funtsen ekarpenaren eta lankidetza-hitzarmenen bidez.
- k) Jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo baztertzea, fundazioarentzat komenigarria den guztietan, horien berri emanez babesletzari.
- l) Fundazioaren estatutuak aldatzea, fundatzaileen nahia hobeto betetzeko beharrezkoa bada.

ITSAS MUSEUM BILBAO

27. artikulua.- Ahalmenak eskuordetzea eta ahalordeak ematea.

1- Patronatuak bere ahalmenak eskuordetu ahal izango ditu bere kideren batengan. Ezin izango dira eskuordetu, inolako kasutan, gai hauek erabakitzen dituzten akordioak:

- a) Urteko kontuen onespina.
- b) Jarduketa-planaren onespina.
- c) Estatutuen aldaketa.
- d) Fundazioaren bat-egitea, zatiketa, eraldaketa, desagertzea eta likidazioa.
- e) Beste pertsona juridiko baten eratze-egintzak, egintza horiek helburuekin zuzen-zuzenean lotura duten kasuan salbu.
- f) Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa fundazioaren aktiboaren % 20tik gorakoa bada.
- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duten ondasunak edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
- h) Zuzkidura handitzea edo gutxitzea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien edo haien zati baten bat-egitea, zatiketa edo lagapen orokorra.
- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk desagiteko egintzak.
- k) Patronatuko kideen autokontratazioa, jarduketa hori errepikatua denean eta babesletzak aurrez antzeko kasuetarako baimena eman duenean salbu.

ITSASMUSEUM BILBAO

1) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

2- Era berean, patronatuak ahalmen orokorrak eta bereziak emateko edo baliogabetzeko aukera izango du.

28. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak.

Fundazioaren Patronatuko kideek betebeharrak hauek dituzte:

a) Fundazioko helburuak zorrotz betetzea eta betearaztea, legean eta fundazioaren estatutuetan ezarritakoaren arabera.

b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea, eta haien produktibitateari eustea, kudeaketa on baterako ekonomia- eta finantza-irizpideak kontuan hartuta.

c) Beren funtzioak fede onez eta behar bezala betetzea, patronatuan duten posizioa abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko erabili gabe, eta duten karguagatik jakin duten edozein jarduketa irregular horren eskumena duten organoei jakinaraztea.

29. artikulua.- Patronatua osatzen duten pertsonen erantzukizuna.

1- Patronatuko kideek solidarioki erantzungo dute fundazioaren aurrean, legearen edo estatutuen kontratuko egintzen ondorioz edota kargua arduraz ez betetzeagatik eragiten dituzten kalteengatik eta galerengatik.

2- Erantzukizunetik salbuetsita geldituko dira erabakiaren

ITSASMUSEUM BILBAO

aurkako botoa eman dutenak, eta erabakia hartzen eta betearazten esku hartu ez dutela eta erabakiaren berririk ez zutela frogatzen dutenak, bai eta, erabakiaren berri izan arren, kaltea saihesteko komeni zen guztia egin zutela edo, behintzat, erabakiaren aurka agertu zirela frogatzen dutenak ere.

30. artikulua.- Koordinazio orokorra edo zuzendaritza.

1. Fundazioaren jarduerak hobeto garatzeko beharrezkoa dela irudituz gero, patronatuak pertsona bat izenda dezake koordinatzaile edo zuzendari nagusi, kargua beteko duenaren lanaren baldintza orokorrak zehaztuz. Izen batekin edo bestearekin izendatu ahal izango du.

2. Koordinatzaile edo zuzendari nagusiaren kargua bateraezina da patronatuko kidearen karguarekin.

3. Karguak iraupen mugagabea du, baina patronatuak, edozein unetan, hura kargutik kentzea erabaki dezake.

Karguaren izaera profesionala kontuan hartuta, patronatuak zehazten duen zenbatekoa eta hark adierazitako moduan ordaindu ahal izango zaio. Haren eta fundazioaren arteko lotura kontratu bidezkoa izango da, eta dagokion kontratua egiterakoan zehaztuko da lotura hori.

31. artikulua.- Koordinazio orokorraren edo zuzendaritzaren funtzioak.

Aurreko artikuluekin bat etorriz fundazioko koordinatzaile edo zuzendari nagusia izendatzen denean, patronatuaren

ITSASMUSEUM BILBAO

idazkaritzaren eta fundazioaren jardueren zuzendaritzaren funtzioak beteko ditu.

Patronatuko idazkari gisa, honako zeregin hauek dagozkio:

- a) Lehendakariak hala aginduta, patronatuaren bileren gai-zerrenda idaztea, eta bileren deialdiak egitea.
- b) Patronatuko bileretan, idazkari gisa jardutea, bilerei dagozkien aktak idatziz, lehendakariak oniritziarekin eta onarpenarekin.
- c) Akten artxiboaren kontrola eramatea, eta baita fundazioaren gutunena ere.

Dokumentu horiek idazteko, akten idazkari bat izenda daiteke. Edozein arrazoiengatik koordinatzaile edo zuzendari nagusirik ez badago edo agertzen ez bada, lehendakariak zehazten duen patronatuko pertsonak beteko ditu arlo horretako funtzioak.

Fundazioaren jardueren zuzendari gisa, honako zeregin hauek dagozkio:

- a) Patronatuak hartutako erabakiak eta ildoak betetzea.
- b) Fundazioan ematen diren zerbitzuak zuzentzea, fundazioaren helburuak hobeto lortzeko beharrezkoak diren moduan antolatuz.
- c) Fundazioaren helburuekin bat datozen proiektuak, azterketak eta zerbitzuak kontratatzea, dagozkien arauetan ezarritako baldintzetan.
- d) Ekitaldi ekonomiko bakoitzean fundazioak egin ditzakeen jarduketa-programak prestatzea, proposatzea

ITSAS MUSEUM BILBAO

eta zuzentzea, horiek onartu ondoren.

e) Fundazioaren instalazio, zerbitzu edo jarduera berriei buruzko proiektuak patronatuari aurkeztea, onar ditzan, bai eta jada lehendik daudenak hedatzekoak edo aldatzekoak ere.

f) Komenigarritzat jotzen diren lankidetzak, laguntza- eta erosketa-kontratuak idaztea eta horiek patronatuari proposatzea.

g) Jarduera edo zerbitzu ororen kontabilitate orokorra eta osagarria antolatzea, bai eta kobratzeko eta ordaintzeko moduak ere.

h) Fundazioarekin lotuta dauden pertsonen izendapenak eta haien ordainsariak proposatzea, bai eta haiekin egin beharreko kontratuak ere; eta haien jardueren banaketa eta antolamendua nahiz lan-erregimena proposatzea.

i) Ordainketak agintzea, eta sozietatearen kontuak banku edo kutxetan edukitzea, lehendakariaren jarraibideen arabera.

j) Fundazioaren aurrekontuak prestatzea eta aurkeztea, onartuak izateko, bai fundazioaren aurrekontu orokorrak, bai edozein zerbitzu edo jarduerari dagozkion aurrekontu bereziak.

k) Fundazioaren sinadura eramatea, lehendakariaren oniritziarekin.

l) Fundazioa ordezkatzeko, lehendakariak ordezkariak ematen dihonean, epaiketetan eta epaiketetatik kanpo,

ITSASMUSEUM BILBAO

fundazioak mota guztietako botere publiko, erakunde, korporazio eta pertsona juridiko edo fisiko guztiekin dituen harremanetan.

32. artikulua.- Aholku-batzordeak.

Patronatuak, bere kideen bi herenen aldeko botoarekin, aholku-batzorde bat edo gehiago izendatuko ditu, kasu bakoitzean egokien iruditzen zaizkion osaera, funtzio eta ahalmenekin.

Horien ahalmenak, dena den, kontsulta-izaera izango dute soilik.

Patronatuak zehaztuko ditu, batzordea izendatzen duen unean, batzordearen osaera, funtzionamendua eta eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko moduak. Horrela ez bada, antzekotasuna kontuan hartuta, patronatuarentzat berarentzat aurreikusitako arauak aplikatuko dira.

32 BIS artikulua.- Patronatuaren Batzorde Eskuordetua

A) Osaera.

Patronatuak Batzorde Eskuordetu bat izendatu ahal izango du. Batzorde hori Patronatuko berezko kide guztiek eta hautazko kide batek (izendatuta badaude) osatuko dute, eta horiek guztiak ordezkatzeko dituzte. Batzordekide guztien ordezkari izango den hautazko patronatukidearen izendapena txandaka egingo da urtero, eta ezarritako ordena hautazko patroik gisa antzinatez handiena edo txikiena duena izango da.

Fundazioaren Koordinazio Orokorreko edo Gerentziako

ITSASMUSEUM BILBAO

arduraduna batzorde eskuordetuaren bileretara joango da, hitzarekin baina botorik gabe. Era berean, lehendakariak bereziki gonbidatutako beste pertsona batzuk ere bertaratu ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe.

Patronatuaren Batzorde Eskuordetuaren Lehendakaritza eta Idazkaritza Patronatuko lehendakaria eta idazkaria izango dira, baldin eta azken hau Patronatuko kide bada. Hala ez bada, Batzorde Eskuordetuak idazkari bat aukeratuko du bere kideen artetik.

B) Ahalmenak.

Batzorde Eskuordetuak Patronatuak delegatzen dizkion ahalmenak izango ditu, eta, izendapena egitean ahalmenak zehaztu ezean, Patronatuaren ahalmen guztiak izango ditu, Legearen 18.1 artikuluan eta estatutu hauen 27.1 artikuluan ezarritakoaren arabera eskuordetu ezin direnak izan ezik.

C) Barne-funtzionamendua.

Batzorde Eskuordetuaren bilerak lehendakariak deituko ditu, gutxienez bost egun lehenago. Urtero, Batzorde Eskuordetuak gutxienez lau ohiko bilera egingo ditu. Batzorde Eskuordetua balio osoz eratzeko, lehenengo deialdian gutxienez kideen erdia gehi bat egon beharko dira; bigarren deialdian, berriz, gutxienez hiru kide egotea nahikoa izango da, baldin eta bertaratutakoen artean lehendakaria badago.

D) Erabakiak hartzea.

Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran eta Patronatuak Jarduketa Plana onartu ondoren, ekitaldi horretako Jarduera

ITSASMUSEUM BILBAO

Planean erregistratutako diru-sarreraren artean dauden patronatukideen guztizko ekarpenak eurotan finkatuko dira (hamartarrik gabe biribilduta). Ekarpene horiek erreferentziako ekitaldian Batzorde Eskuordetuan erabili beharreko boto-kopuru osoa osatuko dute.

Batzorde Eskuordetuko kide bakoitzak, aipatutako ekitaldian, honako boto-kopuru hau baliatzeko eskubidea izango du:

1) Berezko kide izaera duen kide bakoitzak berak egindako edo konprometitutako ekarpenen (hamartarrik gabe biribilduak) zenbatekoaren baliokidea den boto-kopurua erabiltzeko eskubidea izango du.

2) Hautazko kide den kideak boto-kopuru bat izateko eskubidea izango du, hautazko kide guztien ekarpen bateratuen baliokidea.



IV. KAPITULUA.- ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA.

33. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Hasierako zuzkidura osatzen duten eta balorazio ekonomikoa izan dezaketen ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiek osatuko dute fundazioaren ondarea, bai eta eratu ondoren fundazioak eskura ditzakeen guztiek ere, zuzkidurari lotu ala ez.

34. artikulua.- Ondare-zuzkidura.

1- Fundazioaren hasierako ondare-zuzkidura fundazioa eratzeke eskritura publikoan izaera horrekin jasotakoa da, eta fundazioaren sortzaileek ekarritako ondasunek eta eskubideek osatzen dute.

2- Ondorengo ondare-zuzkidurak patronatuak onartu behar ditu, eta urteko kontuetan jaso behar dira.

3- Fundazioak ondare-zuzkidura handitzera bidera ditzake diru-sarreraren soberakinak.

35. artikulua.- Doan eskuratutako ondasunak.

Jaraunspen, legatu, dohaintza, diru-laguntza eta abarren bidez eskuratutako ondareak edota doan eskuratutako beste edozein ondare beroriek eman dituenaren borondatearen arabera eta eskuratzeko unean ezarritako baldintzen arabera aplikatu edo gordeko dira.

36. artikulua.- Fundazioko ondarearen zaintza.

Fundazioko ondarea zaintzeko eta babesteko, honako arau hauek

ITSAS MUSEUM BILBAO

beteko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek fundazioaren izenean egon behar dute, inbentarioan jaso behar dira, eta, hala egin behar denean, dagozkien erregistroetan inskribatu beharko dira.
- b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealak fundazioaren izenarekin inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskriba daitezkeen gainerako ondasunak dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.
- c) Baloreak eta esku-dirua, jabetza-tituluak, gordailu-ordezkagiriak eta jabaria, jabetza, erabilera, gozamina edo fundazioaren titulartasuneko den beste edozein eskubide egiaztatzen duten dokumentuak patronatuak zehaztutako erakundean gordeko dira fundazioaren izenean.
- d) Gainerako ondasun higigarriak patronatuak zehaztutako eran zainduko dira.

Ondare edo eskubide horiek guztiak inbentario-liburuan zehaztuko dira. Liburu hori patronatuko idazkariaren ardurapean egongo da, eta, liburu horretan, haiek identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak idatziko dira, haren ikuskaritzapean

37. artikulua.- Ekonomia- eta kontabilitate-betebeharrak.

1- Urteko kontuak onartu eta hurrengo 30 egun naturaleko

ITSAS MUSEUM BILBAO

epetan, Fundazioaren Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora igorri beharko ditu urteko kontuak, behar bezala sinatuta, gordailutu ditzaten. Irabazi asmorik gabeko erakundeetarako ezarritako kontabilitateari buruzko arauak bete beharko dituzte kontu horiek.

2- Fundazioaren urteko kontuek balantzea, emaitzen kontua, memoria eta aurreko jarduketa-planaren likidazioa jasoko dituzte gutxienez. Era berean, patronatuak aurkeztuko du kontu-ikuskaritzaren txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako kasuetan.

3- Kontu horiek fundazioaren ondare-, ekonomia- eta finantza-egoera, urtean egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa islatuko dituzte, fundazioaren helburuak eta lege-aginduak betetzen direla jakinarazteko eta egiaztatzeko.

4- Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izango da, eta bat etorriko da urte naturalarekin. Salbuespenez izaeraz, lehenengo ekitaldia mila bederatziehun eta laurogeita hamaseiko uztailaren batetik urte bereko abenduaren hogeita hamaikara artekoa izango da.

5- Ekitaldi ekonomiko bakoitzerako jarduketa-plan bat egingo du fundazioak, non diru-sarrerak eta gastuak jasoko diren, modu orekatuan. Plan hori babesletzari aurkeztuko zaio, onartzen den urtearen azken hiruhilekoan, azalpen-memoriarekin batera.

38. artikulua.- Fundazioaren baliabideen aplikazioa.

ITSAS MUSEUM BILBAO

- 1- Emaizten kontuko diru-sarreraren % 70 gutxienez bere helburuak gauzatzera zuzendu beharko du fundazioak. Diru-sarrera horiek kontzeptu guztiak direla-eta lortuak izango dira, diru-sarrerak lortzeko fundazioak izandako gastuak kenduta, fundazioaren helburuak betetzearekin lotutakoak salbu. Emaizta eta diru-sarrera horiek lortu diren ekitaldiaren hasieratik ekitaldi hori itxi ondorengo hiru urte igaro artekoa izango da betebeharrak hori betetzeko epea.
- 2- Administrazio-gastutzat joko dira fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, bai eta patronatuko kideek beren kargua betetzeagatik egindakoak ere, baldin eta diru hori jasotzeko eskubidea badute.

39. artikulua.- Ekonomia-, enpresa- eta merkataritza-jardueren garapena.

- 1- Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak egin ahal izango ditu fundazioak, zuzenean nahiz beste erakunde batzuen bitartez, horiek fundazioaren helburuekin lotuta badaude edota horien osagarriak edo lagungarriak badira; lehiaren defentsarako arauak betez egingo dira, betiere.
- 2- Gainera, beste erakunde batzuetan duten partaidetzaren bidez ere parte hartu ahal izango dute bestelako ekonomia-jardueretan, sozietate-zorren gainean erantzukizun pertsonalik ez dagoen kasuetan.

40. artikulua.- Xedapen- eta karga-egintzak.

ITSAS MUSEUM BILBAO

- 1- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari jakinarazi beharko dizkio fundazioak ondarea osatzen duten ondasunen edo eskubideen kostu bidezko edo doako xedapen-egintzak, bai eta karga-egintzak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legeak jasotzen dituenak, hain zuzen.
- 2- Patronatuak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio babesletzari, xedatzeko edo kargatzeko erabakia behar bezala hartu dela adieraziz eta berorren arrazoiak eta beharrak azalduz; horrez gain, eragiketa ez dela fundazioarentzat kaltegarria eta haren bideragarritasun ekonomikoa ez duela arriskuan jartzen zehaztuko da.
- 3- Xedatze- edo kargatze-egintzen xede diren ondasun edo eskubideek merkatuan duten balioa fundazioaren aktiboaren % 60 baino handiagoa bada, profesional independente batek egindako azterlan ekonomiko bat aurkeztu beharko du patronatuak erantzukizunpeko adierazpenarekin batera. Adierazpenean azaldutakoa egia dela ziurtatu beharko du azterlanak, eta fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu beharko du, bai eta eragiketa irizpide ekonomikoekin, finantzarioekin eta merkatukoekin bat datorrela ere.
- 4- Aipatutako xedapen- edo karga-egintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira, bai eta beste edozein erregistrotan ere, hala badagokie. Gainerako xedapen- edo karga-egintzak babesletzari urtero aurkeztu behar zaion memorian jaso beharko dira.

ITSASMUSEUM BILBAO

V. KAPITULUA.- ESTATUTUAK ALDATZEA.

41. artikulua.- Estatutuak aldatzea.

- 1- Fundazioaren Patronatuak estatutu hauek aldatzea erabaki dezake, fundazioaren helburuak hobeto betetzeko komenigarria bada, eta fundazioaren sortzaileek berariaz debekatu ezean.
- 2- Estatutuak aldatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da; gutxienez patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da erabakia hartzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da.

42. artikulua.- Desegitea.

Fundazioa desegin egingo da:

- a) Eratu zenean finkatutako epea amaitzen denean.
 - b) Eratu zenean finkatutako helburua erabat betetzen denean.
 - c) Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeari estatutuei, bat-egiteari eta bereizketari buruz xedatutakoaren kalterik gabe.
 - d) Bat-egite edo bereizketa-prozesu baten ondorioz hala gertatzen denean.
 - e) Eraketako eskritura publikoetan aurreikusitako arrazoiak gertatzen direnean.
 - f) Legeek aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.
- 

43. artikulua.- Desegite-prozedura.

1- Aurreko artikuluko a) atalean adierazitakoa gertatuz gero, erabat desegingo da fundazioa.

2- Aurreko artikuluko b), c) eta e) ataletan adierazitakoa gertatuz gero, fundazioa desegiteko patronatuaren erabakia beharko da, eta babesletzak berretsi beharko du. Patronatuaren erabakirik ez badago, edota haren erabakia babesletzak berresten ez badu, ebazpen judizial arrazoitua beharko da fundazioa desegiteko, babesletzak edo patronatuak eskatuta, kasuen arabera.

3- Aurreko kapituluko f) atalean adierazitakoa gertatuz gero, ebazpen judizial arrazoitua beharko da.

4- Desegiteko erabakia arrazoitu egin beharko da; gutxienez patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da erabaki hori hartzeko.

5- Desegiteko erabakia, edota, hala badagokio, ebazpen judizial arrazoitua Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

44. artikulua.- Likidazioa eta soberako ondarearen erabilera.

1- Fundazioa desegiten bada, eta desegite horren jatorria bat-egite prozeduraren bat den kasuetan salbu, edo fundazioa desegiteko arrazoiak betetzen badira, likidazio-prozedurari ekingo zaio. Prozesu hori patronatuak edo gobernu-organo horrek izendatutako likidazio-batzorde batek eramango du aurrera, babesletzaren kontrolpean, kasuan kasu, ebazpen

ITSASMUSEUM BILBAO

judizial arrazoitu batek ezartzen duena salbu. Fundazioak bere nortasun juridikoa izaten jarraituko du prozesua amaitu arte, eta, denboraldi horretan, "likidazioan" dagoen fundazio gisa identifikatuko da.

2- Likidazioaren emaitza diren ondasunak eta eskubideak honako hauetara bideratuko dira, ordena honetan:

- a) Interes orokorreko helburuak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuetara.
- b) Fundazioa eratu zuten pertsona juridiko publikoetara, eratu zen unean edo ondoren egindako ekarpenei dagokien proportzioan.

3- Aurreko zehaztapen hori falta bada, desegindako fundazioaren antzeko helburuak dituzten beste fundazio edo erakunde batzuetara bideratuko ditu babesletzak ondasunak eta eskubideak; lehentasunez, helbidea udalerrri berean dutenetara bideratuko ditu, eta, han izan ezean, lurralde historiko berean dutenetara.

VI. KAPITULUA.- BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA.

45. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa.

Fundazio honen eraketa, bai eta legeak hala agintzen dituen fundazioaren egintza edo negozio juridiko guztiak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

46. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza.

Fundazio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren zaintzapean, aholkularitzapean eta kontrolpean egongo da, indarrean dauden legeetan aurreikusitakoaren arabera.

47. artikulua.- Zehapen-araubidea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean aurreikusitako zehapen-araubidea beteko du fundazioak.

ITSASMUSEUM BILBAO

ESTATUTOS de la "FUNDACION MUSEO MARITIMO RIA DE BILBAO-BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOA"

CAPITULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Denominación, Régimen Jurídico y duración.

La entidad denominada "FUNDACION MUSEO MARITIMO RIA DE BILBAO - BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOA" es una organización constituida sin ánimo de lucro que tiene afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés general.

La Fundación se regirá por los presentes Estatutos y por cuantas normas legales le sean de aplicación, en especial por la Ley de Fundaciones del País Vasco, las disposiciones reglamentarias de desarrollo y demás normativa vigente.

La Fundación se constituye por tiempo indefinido.

Artículo 2.- Personalidad.

La Fundación dispondrá de plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas en la manifestación de voluntad de las personas fundadoras en el acto fundacional, en los presentes estatutos y, en todo caso, en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular la Ley de Fundaciones del País Vasco.

En consecuencia, y sin perjuicio de las pertinentes comunicaciones al Protectorado, la Fundación tendrá plena capacidad de obrar en el cumplimiento de sus fines, conforme

ITSASMUSEUM BILBAO

a lo previsto en el artículo 38 del Código Civil.

La Fundación podrá:

- a) Desarrollar actividades económicas, de todo tipo, para realizar sus fines o allegar recursos con ese objeto.
- b) Adquirir y enajenar toda clase de bienes y derechos, por cualquier título, y celebrar todo tipo de actos, negocios y contratos.
- c) Ejercitar toda clase de acciones, conforme a sus estatutos y a las leyes.

Artículo 3.- Fines.

Esta Fundación tiene como fines los siguientes:

La investigación, conservación y difusión del legado histórico que suponen todas las actividades relacionadas con la mar y el estímulo y fomento de trabajos sobre la materia, así como una decidida colaboración con cuantas iniciativas públicas y privadas se orienten en el mismo sentido, sin perjuicio de contactos y programas de colaboración con entidades y organismos de otros ámbitos, al objeto de realizar exposiciones de todo tipo relacionadas con los fines museísticos; en las exposiciones flotantes realizará también las funciones de consignación de los buques que arriben a los muelles del museo. Todo lo cual se materializará en la creación del MUSEO MARITIMO RIA DE BILBAO, sin perjuicio de que se pueda utilizar la marca comercial que el Patronato decida.

ITSASMUSEUM BILBAO

La Fundación dará publicidad suficiente a sus objetivos y actividades, a fin de que sean conocidas por sus eventuales beneficiarios e interesados.

Artículo 4.- Domicilio.

La Fundación tiene su domicilio en Bilbao, Muelle Ramón de la Sota número 1.

Mediante acuerdo de modificación estatutaria adoptado por el Patronato de la Fundación, podrá determinarse el traslado de domicilio; modificación que deberá ser inscrita en el Registro de Fundaciones. Asimismo, se faculta al Patronato para la determinación de las sedes de los establecimientos, delegaciones u oficinas, que, según los casos, se fijen en función de las necesidades derivadas del cumplimiento de los fines fundacionales.

Artículo 5.- Ámbito Territorial.

